

Orain dela hilabete inguru Euskal herriko ezberdinetatik etorritako ikasleak elkartu ginen Gasteizen, bertan azken hilabetetan egindako lanaz eta bultzatutako dinamika eta borroken berri emateaz gain, greba deialdia luzatu genion Euskal Herriko ikasle mugimendu osoari.

ZERGATIK GREBA? ZERGATIK ORAIN?

Inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigulako ikasleok gizarte kapitalista eta heteropatriarkal hau eraldatzeko daukagun erronka, izan ere, eraldaketaren olatu soziala gainean dugu eta benetan krisian dagoen sistema hau indarra izan dezan, funtsezkoa izango da ikasleonen aktibazioa eta parte hartzea, horregatik guk argi dugu.

Gasteizko agerraldian esan bezala, hezkuntza berebiziko garrantzia du, sistemaren birproduktzioarako. Txikitatik barneratzen dizkigute balio kapitalista eta heteropatriarkalak: lehia, zapalkuntza, genero rol inposatuak, diru gosea, kontsumismoa... Txikitatik burua jaitsi eta injustizien aurrean men egitera behartzen gaituzte, heuren kideekin lehiatuko duten gizaki sumisoak. Hezkuntza ibilbidea amaitzen dugunerako sistema kapitalistaren beste engranaje bat bilakatuz. Hori dela eta, gure inguru eta errealitatetik abiatuta, egunerokotasunean bizi ditugun zapalkuntzei aurre egin eta gaurdanik, gure zentroetatik bertatik, bestelako hezkuntza eredu baten alde egiteko autua hartu dugu. Eta horretan buru-belarri ibili gara azken asteetan; kontrol sozialaren salaketatik, ikas baldintza duinen eta rol inposaketen edota genero zapalkuntzaraino, gure eduki, kultura eta hizkuntzaren defentsatik igaro eta kultur artekotasuna edo ingurumenaren aldeko borroka ahaztu gabe.

Hamaika izan dira Euskal Herri osoko heziguneetan jorratutako gaiak eta egindako salaketak. Zenbaitetan komun komunak aldarrikatu dituzte (ZARAOBE INSTITUTOAN ADIBIDEZ), beste batzuetan, ebaluazio sistema jarri dute ezbaian (LAUDIO IKASTOLA ETA ZARAOBEN ADIBIDEZ), kameran aurkako borroka ere presente egon da. Eta garrantzitsuena da borroka horiek guztiak batera egin ditugula. Euskal herri luze eta zabaleko errealitate ezberdinetatik abiatuta sistema honek inposatzen dizkigun zapalkuntzei aurre egin diegu eta ikasleonen borroka eta antolakuntzaz argi utzi dugu bestelako hezkuntza eredu bat eraiki daitekeela. Orain ordea, gure eguneroko borroka lokalak batu eta denok batera ekiteko garaia heldu dela deritzogu. Funtsezkoa baita egunerokotasunetik eta errealitatetik jardutea, baina are garrantzitsuagoa da gure artean elkartzea eta komunean ditugun arazo guzti horiei batera erantzutea, eta hori da ezinbestean greba honen bidez lortu nahi duguna, azken urteetan itzalean egondako ikaslearen argia piztu eta eraldaketaren alde sortu den olatu sozialera batu; pentsionistak, metaleko edota zaintzako langileak, mugimendu feminista, aldaketa klimatikoaren aurkako mugimendua, erabakitzeko eskubidearen aldeko tsunamia, prekarietatearen aurkako borroka... Borborka dago gizarteak, geroz eta gehiago zapaltzen eta itotzen gaituen sistema baten aurka irakiten. Gazteak, langileak, emakumeak eta pentsionistak, denek hartu dituzte kaleak egunetan eta argi utzi dute hala jarraituko dutela. Mobilizazio eta aldarrikapenen garaia heldu da, borrokarako unea heldu da eta ezinbestekoa da ikasleok batuta eta aktibatuta egotea.

A28

Mobilizazioak Euskal Herriko hiriburuetan izango dira. Eguerdiko 12:00etan

AIARALDEAN **(Aiaraldeko ikasle asanblada: “aiaraldeko.ikasle.garraxia”)**

Lokaletik hasi gara lanean. _Laudio ikastolan Espainiar eta Frantziar estatuek hezkuntzan ere egindako inposaketak seinlatu eta ebaluazio sistema salatu dugu, kontrol astean, azterketek itotzen gaituztela. Zaraobe institutuan komun komen aldeko borroka piztu eta Laudio ikastolan egin bezala, ebaluazio sistema ere salatu da. Eta Aresketa ikastolan heldu botere eta kontrol sozialaren aurkako borroka... Besteak beste.

Orain, denak batu eta 28an Gasteizera goaz dagokiguna aldarrikatzera. Autobusak jarriko ditugu Gasteizera joateko (10:45 Laudioko institutu aurrean eta 11:00 Amurrioko elizako errotondan).